

9. KOSTUEN EGITURA

Proiektu honetan, kostu finko nagusia webgunearen hostinga izango da, hau da, Interneten gure 'txokoa' izateagatik, hilero kostu bera ordaindu beharko dugu. Horrez gain, alokairu bat ere ordaindu beharko dugu, Internet, elektrizitatea...ordaintzearekin batera. Horrez gain, webgunearen domeinuaren izena ere kostu finkoa izango da.

Bestalde, gure kostu nagusiak aldakorrak izango dira: hasteko, plataforman telesailak eta filmak eskaini ahal izateko, hauen eskubideak lortu beharko ditugu. Kostu hau negoziazioaren arabera izango da, hau da, zenbat enprekin iristen garen akordio batera. Horrez gain, denbora igaro ahala, ziurrenik telesail eta film gehiago eskainiko ditugu, denbora joan ahala, hasieran eskaini ditugun film eta telesail batzuk ere kenduko ditugu ziurrenik, errentagarritasun handiago baten bila. Honek ere kostua aldatuko du.

Azkenik, marketinga, publizitatea...ere kostu aldakorra izango da, proiektuaren egoeraren arabera kantitate ezberdin bat inbertituko baitugu arlo honetan. Webguneara mantenimenduaren kostua ere aldatzen da egoeraren arabera.

Proiektua garatu eta hazi ahala, gure ekoizle propioa izan dezakegu, gure plataforman telesail eta film eksklusiboak izan ditzakegu. Ekoizle hau izatea hedapen-ekonomia izango da, izan ere, baliabide berdina (ekoizlea) erabiliko dugu hainbat telesail eta film ekoizteko.

Ondorioz, gure hasierako inbertsioa honakoa izango dela estimatzen dugu:

- 1000€ hilero alokairua, elektrizitatea, Internet...batera.
- 150000€ hasierako negoziazioetarako.
- 20000€ publizitaterako.
- 30€ hilero webgunearen hostingerako + mandenimendurako.
- **Guztira: 170000€ hasieran + 1030€ hilero.**